

RASFF TXOSTENA

ALERTA eta JAKINARAZPENAK


PENTSUAK

2014. URTEKO TXOSTENA


Jakinarazpenen kategorizazioa
Atzemandako arriskuen jatorria
Tartean dauden produktu-motak
Tartean dauden lehengaiak
Aurreko urteen arteko konparazioa

JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA


2014. urtean, pentsuei buruzko 317 jakinarazpen egin dira. Horietatik **51 (% 16) alertak, 198 (% 62) informazio-jakinazpenak eta 68 (% 22) mugan egin diren ukapenak** izan dira.



RASFFen bidez jasotako jakinarazpen-kopuruaren joerari dagokionez, nabaritu da **behera egin duela informazio-jakinazpenen kopuruak**. Bestalde, alerta gisa kategorizatutako jakinarazpenak murriztu egin dira urte osoan. Mugan egindako ukapenen kopuruak, baina, gora egin du urte osoan.




Jakinarazpenetan tartean dauden produktuen jatorriko herrialdeei dagokienez, **hirugarren herrialdeek egin dituzte jakinarazpenen % 43.**



ATZEMANDAKO ARRISKUEN JATORRIA


2014an atzemandako arrisku gehienak **mikrobiologikoak izan dira (% 55) eta jarraian baimendu gabeko OGMak (% 10)**. Ondoren, **mikotoxinak (% 8), dioxinak (% 5) eta PAEak (% 4)** ditugu.



Arrisku mikrobiologikoei dagokienez, **Salmonellak** eragin ditu jakinarazpen gehienak (**161**). Salmonella atzeman den lehengaien artean **arrain-irinak, soja-produktuak, koltza-produktuak eta ekilore-produktuak** daude.


B1 aflatoxina izan da arrisku-mota honekin lotutako jakinarazpen gehienetan identifikatutako mikotoxina, batik bat **artoa eta kakahueteetan** atzeman delako.

Lauhilekoka, aipatzekoa da lehenengo lau hilabeteetan mikrobiologiak, mikotoxinek eta OGMek eragindako jakinarazpen-kopurua oso handia izan dela.




TARTEAN DAUDEN PRODUKTU MOTAK

Produktuka aztertuz gero, **lehengaiak** eragin dituzte jasotako jakinarazpenen % 67, **laguntza-animalientzako pentsuek** % 16, **gehigarri eta aldez aurreko nahasteak** % 11 eta **loditzeko animalientzako pentsuek** % 6.




Jakinarazpenetan tartean dauden produktuen bilakabidea, lauhilekoka:




TARTEAN DAUDEN LEHENGAIK

Azpimarratu egin behar da, lehenik, egindako jakinarazpenetan altua dela **laguntza-animalientzako pentsuen (53) eta gehigarrien (34)** intzidententzia. Nabarmentzekoak dira, halaber, jakinarazpen gehien eragin duten lehengaien artean, **koltza-produktuak (24) soja-produktuak (18), arrain-irinak (41), haragi- eta/edo hegazti-irinak (15) eta artoa (21).**




Honako grafiko honetan jakinarazpenen bilakabidea azaltzen da, lauhilekoka, tarteetan dauden lehengaiak aintzat hartuta.



AURREKO URTEEN ARTEKO KONPARAZIOA

2014an 317 jakinarazpen egin dira; 2013an, berriz, 272 jakinarazpen. Aurreko urtearen aldean, **2014an nabarmen egin du gora alerten kopuruak eta neurrian egin du gora informazio-jakinazpenen kopuruak**. Mugan egindako ukapenen kopuruak, berriz, behera egin du.



2010. urtetik 2014. urtera bitartean identifikatutako arriskuei dagokienez, nabarmendu egin behar da mikrobiologia arriskuen eragina, betiere atzemandako gainontzeko arriskuekin erkatuz gero. Oro har, 2014an identifikatutako arrisku gehien jakinarazpenak murriztu egin dira, **salbu mikrobiologia desegokiaren eta baimendu gabeko OGMen kasuan: nabarmen egin dute gora, aurreko urteen aldean.**

